

Kimetz Furundarena Agirre

E maila • 2 saria

11 urte ditut eta Beasaingo Agerre Haundi baserrian bizi naiz. Kirolzalea naiz, xakean ibiltzen naiz, pelikulak ikustea eta irakurtzea eta bertsolaritza gogoko ditut, egun Beasaingo bertso-eskolara joaten naiz. Denbora gustoko gauzetan igarotzeko tarteak dugun honetan, goza dezagun irakurketaz, idazketaz, eskulanez...izan gaitezen sortzaile.



JUAN MARI

Ez dut gogoan noiz elkar ezagutu genuen, ez eta gure adiskidetasuna nola hasi zen ere. Baina dena bata bestearen atzetik etorri zen, konturatzerako biok lagunak ginen, betidanik elkar ezagutuko bagenu bezala.

Uste dut parkean topo egin genuela lehen bizikoz, ni han nengoen nire lagunak noiz etorriko zain, beti bezala hamar minutu lehenago iritsi nintzen hitzordura eta denbora eginez bankuan eseri nintzen. Bera, pareko bankuan zegoen eserita eta orduan hizketan hasi zitzaidan:

- Zer, norbaiten zain?

- Bai... -ez nuen begirada gehiegi altxa, amak beti esaten zidan ezezagunekin ez hitz egiteko. Ez nekien nor zen, 50 urte inguru izango zituen, bere itxurak behintzat hori esaten zidan.

- Zer, jolasteko geratu al zarete?

- Bai, futbolekin aritzen gara.

Orduan bera, txikitan zertan ibiltzen zen kontatzen hasi zitzaidan. Hori izan zen gure lehen elkarrizketa, eta handik aurrera ia astebururo elkartzen ginen. Ni gero eta lehenago joaten nintzen lagunaren hitzordura. Juan Marirekin solasean aritzea izugarri gustatzen zitzaidan.

Juan Mari Agurainen jaioa zen, 1960an. Bere gurasoekin batera bizi zen hauek hil arte, eta ez zuen seniderik. Abenturazalea zen eta urte askoan hara eta hona ibili zen bidaian. Bidai hauetako istorioak kontatzen zizkidan eta ni, adi-adi egoten nintzen entzuten. Berarekin egon nintzen azken egunean, ordura arte ez nekizkien gauzak hasi zitzaizkidan kontatzen. Kanean bizi zen, azken urtebetean lana galdu eta gurasoen etxeko alokairua ordaintzerik ez zuenez, jabeak etxetik bidali zuen. Meriendatzeko eraman nuen ogitartekoa eman nion eta baita amak paga moduan eman zizkidan 2 euroak ere. Gustura hartu zituen eta orduan, negua hotz zihoala eta berokiren bat ematerik ba ote nuen galdetu zidan. Orduan, aitak oparitutako plumifero berria eman nion, justu samar zuen baina erabiltzeko moduan. Hasieran, ez zidan hartu nahi izan baina gurasoei zer esan asmatuko nuela esan nion. Etxera heldu nintzenean, amari berokia lapurtu zidatela esan nion. Jolaserako bazter batean utzi nuela eta etxera etorri behar nuenean falta zela.

Ama haserretu egin zitzaidan, baina gehiago haserretuko zen egia esan banio. Astebururako astean zehar jana biltzen aritu nintzen eta ezkutuan gordetzen nuen nire logelako armairuan.

Larunbata heldu zen eta ni urduri nengoen arratsalderako. Aurreko astean, Boliviara egin zuen bidaia hasi zitzaidan kontatzen, bertan familia batean egon zen hilabetez eta oraindik ere poltsikoan gordetzen zuen haiekin ateratako argazkia. Garrantzitsua zen beretzat eta haietaz hitz egiten zuenean, distira berezia egiten zien begiek. Sukaldean gosaltzen ari zela, amak mahai gainean utzi zuen egun horretako egunkaria eta azalean berri hau zetorren: "Gizonezko bat hilik agertu da kutxazain batean" eta azpian argazki bat zegoen. Argazkian hildakoa garbi agertzen ez bazen ere, berehala ezagutu nuen nire berokia eta korrika irten nintzen etxetik.

Kutxazainera heldu nintzenean, bertan ez zegoen inor, lurrean argazki bat bakarrik, Juan Mari eta Boliviako bere familia.